

PROIEKTU TEKNIKOEN ATALEKO BURUA

LANPOSTUAREN ZEHATZAPEN LABURRA

Premiak aztertzeaz gain, eraikuntza- eta urbanizazio-proiektuak beren instalazioekin eta azpiegiturekin diseinatu eta idaztea, baita segurtasunari eta suteei buruzko proiektuak eta Azterketa eta Egitasmo Arloko burutzak esleitzen dizkion proiektu bereziak diseinatu eta idaztea ere.

Ataleko baliabideak kudeatzea.

EGINKIZUNEN AZALPEN ZEHATZA

-Eraikuntza-azpiegituren, obra zibilaren eta edozein motatako instalazioen arloan jakinarazten zaizkion premiak (baita segurtasun-arlokoak ere) aztertu eta ikertzea, eta konponbideak egiaztatzea, erabiltzailearekin zuzenean edo Arloko teknikarien laguntzarekin, eta konponbide egokienak baliozkotzea.

-Proiektuak idazteko lanak planifikatzea Arloko langileekin edo enpresa laguntzaileekin. «Proiektu-planak» egitea: plan horiek abian jartzeko premiak aztertzea, Arloan bertan eskuragarri dauden baliabideekin erkatuz eta kanpoko baliabideak beharko ote diren aztertuz.

-Proiektuak garatzeko lanak gainbegiratzea, diseinua eta zehaztapen teknikoak, memoriak, baldintza-agiriak eta beharrezkoak diren aurrekontuak barne; horretarako, bere ataleko proiektuburuarekin elkarlanean arituko da, nahitaez bete behar den araudia, Sailaren antolamendu-irizpideak eta aurrekontu-mugak kontuan hartuta.

-Gainbegiratze-bulegoaren oniritzia behar duten proiektuak gainbegiratzeko laguntzea, eta nahitaez bete behar den dokumentazio guztia txertatzen dutela eta aldez aurretik ezarritako kalitate-maila betetzen dutela egiaztatzea.

-Laguntza teknikoak emateko eta proiektuak idazteko beharrezkoak diren kontratazio-espedienteak abian jartzeko beharrezkoa den dokumentazio tekniko-administratiboa (baldintza teknikoaren agiriak) idazten du dagokion denboran eta moduan, eta, gainera, dagokion prozesu administratiboaren jarraipena egiten du; hori guztia, Arloko burutzak

gainbegiratzeko du. Dauden kontratuen nahitazeko aldaketak eta osagarriak ere idazten ditu behar den denboran eta moduan.

- Teknologia berriak ikertu, aztertu, egunean jarri eta aplikatzeaz gain, Azoketara, jardunaldi teknikoetara edo topaketa teknologikoetara bertaratzea.

- Arloko burutzeekin elkarlanean aritzea jasotako eskaintzen azterketa tekniko-ekonomikoak egiteko, zuzenean edo enpresa laguntzaileek horretarako egiten dituzten txostenak edo azterketak gainbegiratzeko, eskaintza horien atal teknikoa ebaluatu ahal izateko.

- Arloa kide gisa ordezkatzeko, Arloko espedienteak kontratatzeako prozesuetarako ezarritako kontratazio-mahaietan, bere eskumenekoak direnetan, parte hartzea.

- Arloko burutzearekin elkarlanean aritzea urteko aurrekontua ezartzeko eta aurrekontuaren gertakarien berri emateko, erabaki egokiak hartzeko dagokion epean eta moduan, esleitutako proiektu guztien eta atal osoaren jarraipena eta aurrekontu-kontrola eginez. Aurrekontu-edukiaren aldaketei, epeari edo edukiari buruzko memoriak egitea abian jarritako espedientei.

- Ataleko jardura-txosten guztiak egitea, baita bere funtzioekin lotuta eskatzen zaizkion txosten tekniko guztiak egitea ere.

- Ardurapean dituen langileak koordinatzea, lan-karga banatzea, langileen jarduketa planifikatzea, bere lantaldea motibatzea, eta langileek prestakuntza pertsonala eta profesionala jaso dezaten laguntzea.

- Arloaren burutzearekin elkarlanean aritzea ataleko langileen prestakuntza-premiak zehazteko, eta prestakuntza langile horien artean sustatuz.

- Ardurapean dituen zuzeneko langileak ebaluatzea eta helburuen lorpen-maila edo lanaren betetze-maila kuantifikatzea.

- Kasu batzuetan, bereziki segurtasunaren eta obren edo azpiegituren kasuan, idatzitako proiektuak egikaritzearen zuzendaritza dagokio, proiektu horiek abian jarri eta azkenean entregatu arte; horrez gain, behar den dokumentazioa bildu behar du proiektuak mantentzeko.

- Proiektuen idazketan eta edozein motatako instalazioetan aplikatu behar den araudi teknikoa (kode teknikoa) kudeatzea.

- Segurtasun Sailburuordetzaren eta Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren lantokietako dokumentazio grafikoa kudeatu eta eguneratzea.